



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko uztailaren 1a

87. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

—11-25/LEY-00004. Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).

#### B SAILA:

##### **Foru-lege proposamenak:**

- 11-25/PRO-00013. Foru-lege proposamena, alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonak babestu, haiei arreta integrala eman eta haien bizi-kalitatea hobetzeko. Osoko Bilkurak ez du aintzat hartu (6. or.).
- 11-25/PRO-00014. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak ezetsi du (6. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-25/MOC-00089. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu eten dezan Lokizko akuiferoaren inguruan –Mendazako proiektua barne– hartune-putzu berriak egiteko finantzaketa publikoa, harik eta ustiapen jasangarriko plan eguneratu bat onesten den arte, txosten hidrogeologiko berrienetan oinarritua, jendaurrean ikusgai jarria, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak baliozkotua eta Ega eta Ubagua ibaien emari ekologikoekin bateragarria dena. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsi du (7. or.).
- 11-25/MOC-00095. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita informazio-guneak para ditzan Donejakue Bidearen Nafarroako tartea egiteko aholkuak eta jarraibideak emateko. Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak onetsi du (8. or.).
- 11-25/MOC-00097. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita irizpen bat bultzatzen dezan Europako Erregioen Batzordean, obra eta zerbitzuen enkarguen prozedurei buruzko araudia aldatzeko. Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak onetsi du (8. or.).

- 11-25/MOC-00098. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten juridiko bat egin dezan, zehazteko zer ekintza administratibo eta arau egiten ahal diren pertsona juridikoak baztertu, mugatu, eragotzi edo zehatzeko, baldin eta genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak mantentzen, egiten edo errazten laguntzen duten jarduerak egiten badituzte. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak onetsi du (9. or.).
- 11-25/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita ez dezan gastu militarra handitzea erabaki NATOren goi-bileran. Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak ezetsi du (10. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez Egipto Lecumberri Zaratiegui andrea Nafarroako Kontuen Ganberaren funtzionario izendatzen baita, administrari-posturako (11. or.).
- 11-23/ELC-00009. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko kideak hautatzea (12. or.).
- 11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kideak hautatzea (12. or.).
- 11-25/CIE-00003. Ikerketa-batzorde bat eratzea, Belateko tunelak bikoizteko obrak esleitzean Nafarroako Gobernuak, beste administrazio batzuek edo hirugarrenek egindako guztia ikertzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (12. or.).
- 11-25/CIE-00004. Ikerketa-batzorde bat eratzea, Belateko tunelak bikoizteko obrak lizitzeko eta esleitzeko prozesuan Nafarroako Gobernuak eta, halakorik balego, beste entitate batzuek edo hirugarrenek egindakoa ikertzeko. Osoko Bilkurak ezetsi du (13. or.).
- 11-25/CIE-00005. Ikerketa-batzorde bat eratzea, Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzeke. Osoko Bilkurak onetsi du (13. or.).
- 11-25/CIE-00005. Ikerketa-batzorde bat eratzea Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzeke. Osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak (14. or.).
- Gaitze-erabakia (16. or.).

**J SAILA:****Ponentziak:**

- 11-24/PON-00001. Parlamentuko Erregelamenduen 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeke eta onesteko ponentzia. Erregelamendu Batzordeak onetsitako Jokabide-kodea eta eranskinak (17. or.).

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

**11-25/LEY-00004. Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko ekainaren 26an egindako bilkuran, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 166. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Foru Legea, Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturi 2025eko aurrekontuan guztira 3.657.469,68 euroko kreditu-gehigarriak eta 127.260,00 euroko aparteko kreditua emateko**

ATARIKOA

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak; Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalekoak; Hezkuntzakoak; eta Kultura, Kirol eta Turismokoak txostenak bidali dituzte, 2025ean zenbait gasturi aurre egiteko beharrari buruzkoak, ez baitago aurrekontu-partida egokirik, edo kontsignatuta dagoen kreditua aski ez baita hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin diren konpromiso batzuei erantzuteko.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 48. artikulua lehen

paragrafoan ezartzen du ezen, hurrengo ekitaldira arte berandutu ezin daitekeen gasturen bat aurrekontu indardunaren kargura egin behar bada eta bertan krediturik ez badago edo kontsignatuta dagoena aski ez bada eta ezin bada handitu aipatutako foru legean jasotako xedapenen arabera, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, foru-lege proiektu bat bidaliko diola Nafarroako Parlamentuari, aparteko kreditu bat ematekoa, lehen kasuan, edo kreditu-gehigarri bat ematekoa, bigarreanean.

Era berean, bigarren paragrafoan ezartzen denez, zilegi da, kreditu-gehigarria eta aparteko kreditua finantzatzeko, edozein gastu-programatako beste kreditu erabilgarri batzuk baliatzea, are Parlamentuak zuzenketen edo foru lege horretako xedapenen ondorioz berariaz onetsitako kredituetakoak, ekitaldi ekonomiko bereko diru-sarrera handiagoen kargura (diru-sarrera horiek errealak edo aurreikusitakoak direla ere) edo jatorrian dagoen gastua egiteari atxikitako diruzaintza-gerakinaren aplikazioaren kargura.

**1. artikulua.** Kreditu-gehigarri bat ematea Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuari.

2025eko ekitaldian 2.187.469,68 euroko kreditu-gehigarria ematen da, Gizarte Zerbitzu Publikoak kudeatzeko Nafarroako GIZAIN Fundazioari egindako enkarguaren finantzaketa-beharrei erantzuteko.

Kreditu-gehigarri hori aurrekontu-partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
920008-93300-2279-231700 «Gizarte Zerbitzu Publikoak kudeatzeko Nafarroako GIZAIN Fundazioari egindako enkargua»	2.187.469,68

Kreditu-gehigarria 2025eko diru-sarreraren aurrekontuko partida honen kargura finantzatu da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
114001-13100-5200-000000 «Kontu korronteen interesak eta eperako ezarpenak»	2.187.469,68

**2. artikulua.** Kreditu-gehigarri bat ematea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalako Departamentuari.

2025eko ekitaldian 270.000,00 euroko kreditu-gehigarria ematen da finantzaketa-behar hauei

erantzuteko: BAI Fundazioa: robotikaren garapena eta eraikuntzaren eta arkitekturaren industrializazioa.

Kreditu-gehigarri hori aurrekontu-partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G10001-G1100-4301-322300 "BAI Fundazioa: robotikaren garapena eta eraikuntzaren eta arkitekturaren industrializazioa"	270.000,00

Kreditu-gehigarria 2025eko diru-sarreraren aurrekontuko partida honen kargura finantzatu da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
113002-12000-8700-000000 Diruzaintzako gerakin atxikia	270.000,00

**3. artikulua.** Kreditu-gehigarri bat ematea Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitalako Departamentuari.

2025eko ekitaldian 1.200.000,00 euroko kreditu-gehigarria ematen da finantzaketa-behar hauei

erantzuteko: CENER Fundazioari funtsak helaraztea I+G+B arloko proiektu eta inbertsioetarako.

Kreditu-gehigarri hori aurrekontu-partida honi aplikatuko zaio:

PARTIDA	ZENBATEKOA
G20001-G2100-7301-467300 "CENER Fundazioari funtsak ematea I+G+B arloko proiektu eta inbertsioetarako"	1.200.000,00

Kreditu-gehigarria 2025eko gastu-aurrekontuko partida honen kargura finantzatu da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
820005-82600-7701-467304 "Eskualdez gairako lankidetzaren proiektu eta jarduketetarako dirulaguntzak"	1.200.000,00

**4. artikulua.** Aparteko kreditu bat ematea.

2025erako aurrekontuan 127.260,00 euroko kreditu berezia ematen da, Nafarroako Gobernuaren departamentu batzuen finantzaketa-beharrei erantzuteko.

Kreditu berezi hori aurrekontu-partida hauei aplikatuko zaie:

PARTIDA	ZENBATEKOA
410001-41800-7609-325114 "Hitzarmena Leitzako Udalararekin hezkuntza-azpiegituretan inbertsioak egiteko"	37.260,00
A50000-A5000-7819-336103 "Hitzarmena Aitziber Urdiaingo Gaztedia elkartearekin igerilekua berritzeko"	90.000,00

Kreditu berezia aurrekontu-partida hauetan dagoen kreditu erabilgarriaren kargura finantzatu-ko da:

PARTIDA	ZENBATEKOA
410001-41800-6020-325139 "Hitzarmena Leitzako Udalararekin hezkuntza-azpiegituretan inbertsioak egiteko"	37.260,00
A50000-A5000-7609-3361H8 "(E) Hitzarmena Aitziber Urdiaingo Gaztedia elkartearekin igerilekua berritzeko"	90.000,00

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**B saila:**  
**FORU-LEGE PROPOSAMENAK**

---

**11-25/PRO-00013. Foru-lege proposamena, alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonak babestu, haiei arreta integrala eman eta haien bizi-kalitatea hobetzekoa**

*OSOKO BILKURAK EZ DU AINTZAT HARTU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko ekainaren 19an, erabaki du aintzat ez hartzea alboko esklerosi amiotrofikoa duten pertsonak babestu, haiei arreta integrala eman eta haien bizi-kalitatea hobetzeko foru-lege proposamena, zeina Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu baitzuen eta 2025eko maiatzaren 30eko 71. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-25/PRO-00014. Foru-lege proposamena, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko ekainaren 26an egindako bileran, ezetsi egin du Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 179 artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-25/MOC-00089. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen baitu eten dezan Lokizko akuiferoaren inguruan –Mendazako proiektua barne– hartune-putzu berriak egiteko finantzaketa publikoa, harik eta ustiapen jasangarriko plan eguneratu bat onesten den arte, txosten hidrogeologiko berrienetan oinarritua, jendaurrean ikusgai jarria, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak baliozkotua eta Ega eta Ubagua ibaien emari ekologikoekin bateragarria dena**

*LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuaren erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita eten dezan Lokizko akuiferoaren inguruan –Mendazako proiektua barne– hartune-putzu berriak egiteko finantzaketa publikoa, harik eta ustiapen jasangarriko plan eguneratu bat onesten den arte, txosten hidrogeologiko berrienetan oinarritua, jendaurrean ikusgai jarria, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak baliozkotua eta Ega eta Ubagua ibaien emari ekologikoekin bateragarria dena. Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsi zuen, 2025eko ekainaren 20an egindako bilkuran. Erabakia eragin zuen mozioa Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioko Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu zuen, eta 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eten dezan Lokizko akuiferoaren inguruan –Mendazako proiektua barne– hartune-putzu berriak egiteko finantzaketa publikoa, harik eta ustiapen jasangarriko plan eguneratu bat onesten den arte, txosten hidrogeologiko berrienetan oinarritua, jendaurrean ikusgai jarria, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak baliozkotua eta Ega eta Ubagua ibaien emari ekologikoekin bateragarria dena.

2. Nafarroako Parlamentuak Ingurumen Zuzendaritza Nagusia premiatzen du ingurumen-txosten bat egin dezan, Lokizko akuiferoaren inguruan edozein zulaketa egin edo zundaketa berriak abian jarri aurretik, ebaluatzeko ea hori bateragarria den ezarritako emari ekologikoekin, Ebroko Plan Hidrologikoaren erregimenarekin eta "Ega-Urederra ibaiak" Natura 2000 Sareko eremuaren ingurumen-babesaren esparruarekin".

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00095. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita informazio-guneak para ditzan Donejakue Bidearen Nafarroako tartea egiteko aholkuak eta jarraibideak emateko**

### *KULTURA, KIROL ETA TURISMO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Kultura, Kirol eta Turismo Batzordeak 2025eko ekainaren 24an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita informazio-guneak para ditzan Donejakue Bidearen Nafarroako tartea egiteko aholkuak eta jarraibideak emateko. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua premiatzen du beste departamentu eta erakunde publiko batzuekin lankidetzan:

1. Informazio-guneak para ditzan turistak hartzen dituzten geltoki nagusietan (Renfe, autobus-geltoki nagusiak eta Noingo aireportua), Donejakue Bidearen Nafarroako tartea egiteko aholkuak eta jarraibideak emateko, bidea modu seguruan eta asegarrian egiteko.

2. Turistak hartzen dituzten geltokietan (Renfe-geltokiak, autobus-geltoki nagusiak eta Noingo aireportua), gure erkidegoko kultura-, turismo- eta aisialdi-eskaintzari buruzko informazioa jasotzeko guneak para ditzan.

3. Tren- eta autobus-geltoki nagusiak Orreagarekin lotu ditzan, anezken bidez, gure erkidegoko bidearen lehen etapa baita hori.

4. Next Generation SEM europar funtsen kargura finantzatu ditzan informazio-gune berriak; zehazki, '5 Donejakue bideak, mila bide Nafarroan' izeneko ACD-helmugako kohesio-ekintzak kudeatzeko planari esleituen kargura, zeinak konprometitu gabe baitaude oraindik; horretarako, hasierako kopuruari beste bat gehituko litzaioke 5.3 ekintzan, 'seinaletikaren hobekuntza' izenekoan, 5. jarduketaren barrenean ('abia zaitetz Bidean' izenekoan)".

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00097. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita irizpen bat bultzatuz dezan Europako Erregioen Batzordean, obra eta zerbitzuen enkarguen prozedurei buruzko araudia aldatzeko**

### *MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Batzordeak 2025eko ekainaren 27an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita irizpen bat bultzatuz dezan Europako Erregioen Batzordean, obra eta zerbitzuen enkarguen prozedurei buruzko araudia aldatzeko. Hona testua:

"1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Europako Erregioen Batzordean

irizpen bat sustatu dezan 2014/24/EB eta 2014/23/EB zuzentarauak aldatzeko, bai eta Europar Batasuneko estatuen nahiz Europar Batasunaren Administrazioaren beraren obra eta zerbitzuen enkarguen, erosketa publikoen eta dirulaguntzen prozedurei buruzko araudi guztia ere, bazter uzteko arrazoia izan dadin nazioarteko zuzenbidearen arabera genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak egin daitezela laguntzen duten jardura ekonomikoak, komertzialak, logistikoak edo teknologikoak zuzenean edo zeharka egitea.

2. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseiluan (ECOFIN) proposamen bat aurkez dezan 2014/24/EB eta 2014/23/EB zuzentarauak aldatzeko, bai eta Europar Batasuneko estaturen nahiz Europar Batasunaren Administrazioaren beraren obra eta zerbitzuen enkarguen, erosketa publikoen eta dirulaguntzen prozedurei buruzko araudi guztia ere, bazter uzteko arrazoia izan dadin nazioarteko zuzenbidearen arabera genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak egin daitezen laguntzen duten jarduerak ekonomikoak, komertzialak, logistikoak edo teknologikoak zuzenean edo zeharka egitea.

3. Nafarroako Parlamentuak Estatuko Gobernuak premiatzen du Europar Batasuneko Ekonomia eta Finantza Gaietako Kontseiluan (ECOFIN) proposamen bat aurkez dezan, Nafarroa kontseilu horretan egon ahal izan dadin eskubide osoko kide gisa, hitza hartzeko eta botoa emateko ahalmenarekin".

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-25/MOC-00098. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita txosten juridiko bat egin dezan, zehazteko zer ekintza administratibo eta arau egiten ahal diren pertsona juridikoak baztertu, mugatu, eragotzi edo zehatzeko, baldin eta genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak mantentzen, egiten edo errazten laguntzen duten jarduerak egiten badituzte**

***EKONOMIA ETA OGASUNEKO BATZORDEAK ONETSI DU***

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak 2025eko ekainaren 27an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita txosten juridiko bat egin dezan, zehazteko zer ekintza administratibo eta arau egiten ahal diren pertsona juridikoak baztertu, mugatu, eragotzi edo zehatzeko, baldin eta genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak mantentzen, egiten edo errazten laguntzen duten jarduerak egiten badituzte. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du txosten juridiko bat egin dezan, ezartzeko zer ekintza administratibo eta arauemaitze bultzatzen bere eskumen-esparruan pertsona juridikoak obra-enkarguak eta zerbitzuak, erosketa publikoen prozesuak nahiz dirulaguntza-prozedurak gozatzetik baztertu, mugatu, eragotzi edo zehatzeko, baldin eta nazioarteko zuzenbidearen arabera genozidio, gerrako krimen, gizateriaren aurkako krimen edo apartheid diren ekintzak egin daitezen laguntzen duten jarduerak ekonomikoak, komertzialak, logistikoak edo teknologikoak zuzenean edo zeharka egiten badituzte".

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/MOC-00084. Mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita ez dezan gastu militarra handitzea erabaki NATOren goi-bileran**

### *BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak, 2025eko ekainaren 18an egindako bilkuran, ezetsi egin du Carlos Guzmán Pérez jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernua premiatzen baita ez dezan gastu militarra handitzea erabaki NATOren goi-bileran. Mozioa 2025eko ekainaren 6ko 74. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakariaren ebazpena, zeinaren bidez Egipto Lecumberri Zaratiegui andrea Nafarroako Kontuen Ganberaren funtzionario izendatzen baita, administrari-posturako**

Amaitu da hamahiru administrari-lanpostu, funtzionario-araubidekoak eta C mailakoak, oposizio-lehiaketa bidez betetzeko deialdia –horietarik hamaika Nafarroako Parlamentuaren zerbitzukoak izanen dira (bi, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin), eta beste bi, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzukoak (bat, euskarako C1 hizkuntza-eskakizunarekin)–. Deialdia Mahaiak 2023ko ekainaren 14an hartutako erabakiaren bidez onetsi zen (2023ko ekainaren 30eko 137. NAO on argitaratu zen), eta Mahaiak 2024ko otsailaren 26an eta 2025eko urtarrilaren 13an hartutako erabakien bidez aldatu zen, deialdian bi lanpostu huts gehiago sartzeko).

Nafarroako Parlamentuak 2025eko ekainaren 2an hartutako erabakiaren bidez, oposizio-lehiaketako kalifikazio-epaimahaiak Egipto Lecumberri Zaratiegui andrearen alde egindako izendapen-proposamena onetsi zen (izendapen-proposamena 2025eko ekainaren 9ko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2025eko ekainaren 19ko 122. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen). Izendatuari Kontuen Ganberako lanpostu hutsa dagokio, gaztelaniako hizkuntza-eskakizuna duena.

Horrenbestez, lehendakari naizen honek, dauzkadan ahalmen eta eskumenak erabiliz,

**EBAZTEN DUT:**

**Lehenengoa.** – Egipto Lecumberri Zaratiegui andrea Kontuen Ganberako funtzionario izendatzea administrari lanposturako (gaztelaniako hizkuntza-eskakizuna).

**Bigarrena.** – Izendatuak hilabeteko epea izan den du izendapen hau jakinarazten zaionetik aitzina bere lanpostuaz behin betikoz jabetzeko.

**Hirugarrena.** – Xedatzea ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitara dadin, eta agintzea interesdunari jakinaraz dakion eta Nafarroako Kontuen Ganberako idazkari nagusiari helaraz dakion, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria:  
Ignacio Cabeza del Salvador

### **11-23/ELC-00009. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko kideak hautatzea**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak Euskararen Nafar Kontseilurako izendatu beharreko kide gisa hautatzea:

- Ibai Crespo Luna jauna.
- Javier Lecumberri Urabayen jauna (ordezkoa).

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-25/ELCR-00001. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kideak hautatzea**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseilurako izendatu beharreko kide gisa pertsona hauek hautatzea:

- Eva Azanza Bengoetxea andrea.
- Idoia Sara Pérez andrea.
- Josu Reparaz Leiza jauna.
- Patricia Ruiz de Irizar andrea.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

### **11-25/CIE-00003. Ikerketa-batzorde bat eratzea, Belateko tunelak bikoizteko obrak esleitzean Nafarroako Gobernuak, beste administrazio batzuek edo hirugarrenek egindako guztia ikertzeko**

#### *OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko ekainaren 26an egindako bilkuran, ezetsi egin du ikerketa-batzorde bat eratzea, Belateko tunelak bikoizteko obrak esleitzean Nafarroako Gobernuak, beste administrazio batzuek edo hirugarrenek egindako guztia ikertzeko. Eskaria Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak aurkeztu du.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/CIE-00004. Ikerketa-batzorde bat eratzea, Belateko tunelak bikoizteko obrak lizitzeko eta esleitzeko prozesuan Nafarroako Gobernuak eta, halakorik balego, beste entitate batzuek edo hirugarrenek egindakoa ikertzeko**

*OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko ekainaren 26an egindako bilkuran, ezetsi egin du ikerketa-batzorde bat eratzea, Belateko tunelak bikoizteko obrak lizitzeko eta esleitzeko prozesuan Nafarroako Gobernuak eta, halakorik balego, beste entitate batzuek edo hirugarrenek egindakoa ikertzeko. Eskaria Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak eta Talde Mistoak aurkeztu dute.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/CIE-00005. Ikerketa-batzorde bat eratzea, Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertze**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki du ikerketa-batzorde parlamentario bat eratzea, Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertze.

Erabaki hau argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-25/CIE-00005. Ikerketa-batzorde bat eratzea Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzeke**

### *OSAERA, ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUARI BURUZKO ARAUAK*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 26an egindako bilkuran, erabaki du ikerketa-batzorde parlamentario bat eratzea Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzeke.

Hori dela eta, Erregelamenduaren 71. artikuluen 3. apartatua xedatutakoari jarraikiz, batzorde horren osaera, antolaketa eta funtzionamendua ezarriko dituzten arauak onetsi behar dira.

Hori horrela, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, ERABAKITZEN DA:

**1.** Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzeke ikerketa-batzorde parlamentarioaren osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak onestea.

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian adierazitako pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzeke ikerketa-batzordearen osaera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko arauak**

**Lehenbizikoa.** Ikerketa batzordea eta haren jarduketak Parlamentuko Erregelamenduaren 71. artikuluan eta harekin lotutakoetan ezarritakoari egokitu zaizkio.

**Bigarrena.** Ikerketa-batzordearen xedea izanen da Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian adierazitako pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzea.

**Hirugarrena.** Ikerketa-batzordea honela osatuko da: legegintzako batzordeetan kide bat baino gehiago duten talde parlamentarioek bi kide izanen dituzte ikerketa-batzordean, eta legegintzako batzordeetan kide bakarra duten taldeek, berriz, kide bat izanen dute.

**Laugarrena.** Erabaki guztiak boto haztatuaren sistemaren bidez hartuko dira. Eledun bakoitzak, bere talde parlamentarioa zenbat foru parlamentario osatzen duten, horrenbeste boto edukiko ditu batzordean.

**Bosgarrena.** Talde parlamentarioek 2025eko uztailaren 2ko 12:00ak baino lehen jakinarazi beharoko diote Legebiltzarreko lehendakariari nor aukeratu duten batzordeko kide izateko.

**Seigarrena.** Ikerketa-batzordea 2025eko uztailaren 3an eratuko da, 10:00etan.

**Zazpigarrena.** Eratze-bilkuran, zeina Legebiltzarreko lehendakariaren buruzagitzapean egingen baita, batzordekideen artean Mahai bat hautatuko da, zeina lehendakari batez, lehendakariorde batez eta idazkari batez osatuta egonen baita. Batzordeko Mahaiko kideak aldi berean hautatuko dira, boto haztatuko sistemaren bitartez.

Hautaketa egin aurretik, bilkura berean aurkeztuko dira hautagaitzak, Lehendakaritzari zuzendutako idazki bidez. Izen bakar bat idazten ahalko da hautagaitzetan. Boto gehien lortu dituen pertsona lehendakari izendatua izanen da; boto-kopuruan hurrengoa den pertsona, lehendakariorde, eta boto-kopuruan hurrengoa den pertsona, idazkari. Berdinketa gertatuz gero bai lehendakari izateko bai lehendakariorde izateko, zaharrenaren alde joko da. Berdinketa idazkari izateko gertatzen bada, berriz, gazteena hautatuko da. Bozketa egin eta Mahaiko karguren bat bete gabe gelditzen bada, bi zaharrenak aldarrikatuko dira, hurrenez hurren, lehendakari eta lehendakariorde, baldin eta horiek badira bete gabeko karguak, eta idazkari, aldiz, gazteena.

**Zortzigarrena.** Ikerketa-batzordeak 2025eko azaroaren 30a baino lehen amaitu beharko ditu bere lanak, eta egun horretan onetsita egon beharko dute iristen dituen ondorioztapenek. Legebiltzarreko Mahaiak, Eledunen Batzarrak hala erabaki ondoren, epe hori luzatu ahalko du, Batzordeak eskatzen badu.

**Bederatzigarrena.** Ikerketa-batzordeak lanerako plan bat prestatuko du, eta zilegi izanen du beren baitako ponentziak izendatzea eta, Parlamentuko lehendakariaren bidez, eskatzea edozein pertsonak agerraldia egin dezan, hari entzute aldera. Deitzen den pertsonari gutxienez ere hiru egun lehenago jakinaraziko zaio zeri buruz eman behar dituen argibideak.

**Hamargarrena.** Batzordeak egiten dituen informazio- eta dokumentazio-eskaerei erantzuna eman beharko zaie Batzordeak berak kasu bakoitzean ezartzen duen epean. Informazioa edo dokumentazioa batzordeburuari helaraziko zaio zuzenean, eta hark berehala emanen die batzordekide diren foru parlamentariari.

**Hamaikagarrena.** 1. Batzordera agertzeko errekerimenduak zitazio fede-emaila bidez egingen ditu Parlamentuko lehendakariak, Erregelamenduaren 71.5 eta 72. artikuluetan ezartzen den moduan. Zitazio horretan hauxe jaso beharko da:

a) Batzordeak zein egunetan hartu zuen kasuko pertsonaren agerraldia eskatzeko erabakia. Batzordearen xedearekin zerikusia duten gaietarako soilik eskatu ahal da agerraldia.

b) Agerraldia eskatzen zaion pertsonaren izen-abizenak eta helbidea.

c) Zein toki, egun eta ordutan agertu behar duen.

d) Ohartarazpena, adieraztekoa ezen, agertzen ez bada, Zigor Kodearen 502.1 artikuluan jasotako desobeditze-delitua egingen duela.

e) Agerraldian hizpide izanen dituen gaiak. Deitzen den pertsonari gutxienez ere hiru egun lehenago jakinaraziko zaio zeri buruz eman behar dituen argibideak.

f) Espresuki aipatuko da Konstituzioak aitortzen dituen eskubideak errespetatuko direla; bereziki, pertsonen intimitate eta ohorerako eskubidea, sekretu profesionalerako eskubidea eta kontzientzia-klausularakoa.

g) Agerraldia hedabideei irekia izanen delako ohartarazpena. Halere, agerraldira deitutakoak batzordeari eskatu ahal izanen dio bilkura isilpekoa izan dadila, horretarako arrazoiak azalduz.

h) Agertu behar duenak berari laguntzeko pertsona bat izendatzeko aukeraren jakinarazpena.

2. Agertzeko errekerimendua funtzionario publiko bati egiten zaionean, zitazioaren kopia igorriko zaio hierarkian haren gainean dagoenari, jakinarazpen-ondorio hutsetarako.

3. Errekerimendua agerraldiaren eguna baino hamabost egun lehenago jakinarazi beharko da, salbu eta batzordeak erabakitzen badu premiazkoa dela; kasu horretan, epea bost eguneko izanen da. Bilkura ez bada egiten agerraldia eskatu zaion pertsona ez delako bertaratu, berriz egingen zaio zitazioa handik hiru egunera agertzeko, edo handik egun batera, premiazkoa bazen.

4. Agerraldia batzordeko mahaiak aldeztu aurretik ezarritako prozeduraren arabera egingen da, eta prozedura horren berri emanen zaio agerraldia egin behar duenari bere mintzaldia hasi baino lehen. Batzordeko Mahaiak, haren lanek irauten duten bitartean, zaindu beharko du errespetatzen direla pertsonen intimitaterako eta ohorerako, lanbide-sekreturako eta kontzientzia-klausularako eskubideak, bai eta gainontzeko konstituzio-eskubideak ere.

5. Batzordearen aurrean hitz egin aurretik, batzordeko buruak gogora ekarriko dio Zigor Kodearen 502.3 artikuluan zer zigor ezartzen den Parla-

mentuko ikerketa-batzorde baterako deialdia jaso duen norbaitek lekukotza faltsua ematen duenerako.

6. Ikerketa-batzordeak erabaki ahal du pertsona adituen agerraldia eskatzea, batzordeak xede duen gaiari buruzko iritzia eman dezaten. Inguruabar hori esplizituki jaso behar da batzordearen erabakian. Erregelamendu honen 228. artikuluan ezarritako prozedurari jarraikiz eginen dute horiek agerraldia.

7. Agerraldira joatera behartuta dagoenari horren ondorioz sortutako gastuak ordainduko zaizkio, behar bezala justifikatu ondoren, Nafarroako Parlamentuaren aurrekontuaren kargura.

Hamabigarrena. Ikerketa-batzordearen lanek lehentasuna izanen dute Parlamentuaren gainontzeko jardueren aldean.

Hamahirugarrena. Iritsitako ondorioztapenak jasoko dira ikerketa-batzordearen irizpenean, eta irizpena Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatuko da. Baldin eta boto partikularren bat bada go, onetsitako irizpenari gehituko zaizkio, eta Parlamentuaren Osoko Bilkurari aurkeztuko zaizkio irizpenarekin batera, eztabaidatuak eta bozkatuak izan daitezten.

Talde parlamentario proposatzaileak eskatzen baldin badu, ezetsitako boto partikularrak ere argitaratuko dira Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

---

## Gaitze-erabakia

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko ekainaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrarekin bat, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 82. artikuluari jarraituz, ezartzea urte honetako uztailaren 1etik 4ra arteko egunetan eta abuztuaren 5ean egiten ahalko direla Nafarroako Gobernuak azken lau legegintzaldietan Auzitegi Gorenaren Bigarren Salako Laugarren Ataleko 20775/2020 auzi berezian seinalatzen diren pertsona fisiko nahiz juridikoei eginiko edo finantzatutako obra-lizitazio eta -esleipenak aztertzeke ikerketa-batzordearen aparteko saioak.

2. Ezartzea urte honetako uztailaren eta abuztuaren arteko egunetan izan ezik— gauzatu beharko direla aparteko saio horiek egiteko modua emanen duten izapideak, eta epe horretan bete beharko direla, orobat, informazio-, dokumentazio- eta aholku-errekerimenduei dagokienez ikerketa-batzorde horrek hartutako erabakiak.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**J saila:**  
**PONENTZIAK**

---

## **11-24/PON-00001. Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan jasotzen den Jokabide-kodea aztertzeko eta onesteko ponentzia**

### *ERREGELAMENDU BATZORDEAK ONETSITAKO JOKABIDE-KODEA ETA ERANSKINAK*

2025eko ekainaren 23an eginiko bilkuran, Nafarroako Parlamentuaren Mahaiak honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Erregelamendu Batzordearen buruak Jokabide-kodea igorri dio Parlamentuko Mahaiari, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26.2 artikuluan aipatzen dena; eta, horri atxikita, baita jardueren eta ondare-ondasunen aitorpenerako ereduak ere.

Horien edukia dela-eta, arauetako batzuk betetzeko beharrezkoa gertatzen da Mahaiak esku har dezala. Ildo horretatik, 9. artikuluan xedatzen da Parlamentuko Mahaiak bermatu behar duela Parlamentuko kideek Jokabide-kodea betetzea, eta, betetzen ez denean, beharrezkoak diren neurriak hartu beharko dituela, kasua bada. Zehazki, ezartzen du Parlamentuko Mahaiak txosten bat argitaratuko duela urtero, Jokabide-kodearen aplikazioari buruz egin dituen jarduketei buruzkoa. Txosten hori erakundearen webguneko Gardentasuna atalean argitaratuko da, haren edukia argitaratu beharko delarik Nafarroako Parlamentuaren webguneko Gardentasuna atalean, eta Jokabide-kodearen aplikazioarekin zerikusia duen beste edozein txosten ere argitaratuko da hor (xedapen gehigarri bakarra).

Era berean, foru parlamentari guztiei jakinarazi beharko zaie haien datu biografiko pertsonal, akademiko eta profesionalak jasoko dituen ohar labur bat argitaratuko dela Legebiltzarraren webgunean, 7. artikulua 2. apartatua xedatutakoa betetze aldera; parlamentariak garrantzitsutzat jotzen dituen titulu, datu eta artxibo guztiak kontsultatzen ahalko dira hor.

Horrez gainera, Mahaiak Parlamentuko zerbitzuei agindu beharko die gaitu dadila zalantzei eta gainerako gaiei buruzko kontsultak egiteko kanal bat, zeinaren bidez foru parlamentariak eta taldeek Jokabide-kodearen aplikazioari eta interpretazioari

buruzko galderak egiten ahalko baitizkiote Parlamentuko Mahaiari (11. artikulua).

Hori horrela, Mahaiak, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 26., 42.1 eta 42.2 artikuluei jarraituz, honako hau ERABAKITZEN DU:

**1.** Jasotzat ematea Nafarroako Parlamentuko Erregelamendu Batzordeak 2025eko ekainaren 13an onetsitako Jokabide-kodea eta haren eranskinak.

**2.** Zehaztea Jokabide-kodearen 9. artikuluan aipatzen den urteroko txostena hurrengo bilkuraldia amaitutakoan eginen dela.

**3.** Foru parlamentariak jakinaraztea haien datu biografiko pertsonal, akademiko eta profesionalak jasoko dituen ohar labur bat argitaratuko dela Legebiltzarraren webgunean, 7. artikulua 2. apartatua xedatutakoa betetze aldera; parlamentariak garrantzitsutzat jotzen dituen titulu, datu eta artxibo guztiak kontsultatzen ahalko dira hor. Horretarako, oharraren edukia igorri beharko diote datorren bilkuraldian zehar Protokolo atalari, argitaratua izan dadin.

**4.** Parlamentuko Idazkaritza Nagusiari eta zerbitzuei agintzea gaitu dadila zalantzei eta gainerako gaiei buruzko kontsultak egiteko kanal bat, eta egoitu dadila Nafarroako Parlamentuaren webgunean, 7., 9. eta 11. artikuluetan eta xedapen gehigarri bakarrean xedatutakoa betetze aldera.

**5.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea.

**6.** Agintzea Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara daitezela Jokabide-kodea eta haren eranskinak.

Iruñean, 2025eko ekainaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## NAFARROAKO PARLAMENTUKO JOKABIDE-KODEA

**1. artikulua.** Xedea, izaera juridikoa eta aplikazio-eremua.

1. Jokabide-kodeak xede du foru parlamentarien betebeharrak arautzea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 26.2. artikuluaaren garapenez, haien jardunaren zintzotasun- eta gardentasun-eskakizunak areagotzeko eta nafar herritarrek Foru Komunitateko ordezkari-erakunde gorenean duten konfiantza indartzeko.

2. Jokabide-kode hau Nafarroako Parlamentuaren barne-arau bat da, bere Erregelamendua- ren garapenezkoa, eta zuzenean aplikatzekoa eta loteslea da foru parlamentari guztientzat beren eginkizunetan ari direla, beren agintaldiaren denbora osoan.

**2. artikulua.** Jokabideari buruzko printzipio orokorrak.

1. Foru parlamentariak beren karguak berezko- ak dituen eskubideak baliatu eta betebeharrak bete behar dituzte, interes publikoarekin bat. Haien jarduketak Nafarroako herritarren interes orokorra izan behar du xede eta ez da egonen berarentzat edo hirugarrenentzat edonolako ordaina edo onura bilatzeko xedeak konprometituta. Saihestu behar dute interes-gatazka orotan sartzea eta ezin izanen dute aipatu edo baliatu beren foru parlamentari izaera merkataritza, industria edo lanbide jardueretan aritzeko.

2. Foru parlamentariak beren kargua bete behar dute printzipio hauei jarraituz: zintzotasuna, onest- asuna, gardentasuna, arreta, austeritatea, jardun desinteresatua, erantzukizuna eta herritarrekiko eta erakundea parlamentarioarekiko errespetua. Hala- ber, eredugarritasun-printzipioak gidatuko du haien jarduketa, hala baitagokio Nafarroako herritarrek haiengan jarritako konfiantza publikoari.

3. Foru parlamentariak zainduko dute emaku- mezkoen eta gizezkoen arteko errespetua susta- tzen dela, eta hori zailtzen duten oztopoak kenduko dituzte. Halaber, Nafarroako Foru Komunitateko hizkuntza bereki guztien erabilerarekiko errespetua agertuko dute.

4. Foru parlamentariak, Jokabide-kode hone- tan xedatutakoaren arabera, ezin dute onura eko- nomikorik edota mesederik onartu, eskatu edo jaso izapidetako parlamentarioetan eragin edo jakine- ko alderako botoa ematearen truke. Beren eginkizunetan, uko egin behar diote opariak edo ez- ein mesede edo zerbitzu jasotzeari, kortesia hutsezko opariak edota Parlamentua ordeztzen dutenean

ematen zaizkienak izan ezik. Azken horiek Parla- mentuari eman beharko dizkiote.

**3. artikulua.** Ordena, adeitasun eta diziplina parlamentarioko arauak errespetatzea.

1. Foru parlamentariak behartuta daude Parla- mentuko ordena, adeitasuna eta diziplina errespe- tatzea eta jarduketa nahiz ebazpen guztien gaineko sekretua gordetzera, baldin eta horien sekretutasu- na espresuki ezarrita badago Parlamentuko Errege- lamenduan ezarritakoaren arabera.

2. Beren eginkizunak gauzatuko dituzte uneoro gainerako parlamentariarekiko, Parlamentuaren zerbi- tzuko langileekiko, haiekin harremana duten erakun- de, agintari eta enplegatu publikoekiko, komunikabi- deekiko eta haiekin harremana duten herritarrekiko erabateko errespetuarekin.

3. Beren mintzaldietan, parlamentariak ez dute erabiliko adierazpenik gorrotoa zabaltzen, akuila- tzen, sustatzen edo justifikatzen duenik herritarren aurka, oro har, edo pertsona jakinen aurka, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi edo beste edozein baldin- tza edo egoera pertsonal edo sozial dela-eta.

**4. artikulua.** Interes-gatazka.

1. Foru parlamentariak interes pertsonala edo partikularra dagoen prozedura orotan parte hartze- ari uko egin beharko diote.

2. Interes-gatazka izanen da Nafarroako Parla- mentuko kide batek interes pertsonala, zuzena eta berekia, edo zeharkakoa, beste pertsona bereizi baten bidezkoa, badu, baldin eta interes horren eraginez era desegokian betetzen baditu bere betebeharrak, halako moduz non zalantzan jarri ahal den bere objektibotasuna edo independentzia, edota berekin badakar parlamentariak ez izatea xede interes orokorra lortzea. Ez da interes-gataz- karik izanen onuraren bat lortzen denean soilik herritar-taldeko edota pertsona-talde zabal batekoa kide izateagatik.

3. Foru parlamentariak beharrezkoak diren neu- rri guztiak hartuko dituzte interes-gatazkarik izan ez dadin. Gatazka ezin bada ebatzi, parlamenta- riak Parlamentuko Mahaiari jakinaraziko dio lehen- bailehen, betiere kasuko bilkuraren deialdia jaso eta hurrengo hogeita lau orduetan gehienez ere. Mahaiak bidezkoa dena ebatziko du, gaiari buruz- ko txosten juridikoa eskuratu ondoren.

**5. artikulua.** Jardueren eta ondare-ondasunen aitortpena eta interesen erregistroa.

1. Foru parlamentari hautetsiek, parlamentari izaera osoki eskuratzeko, jardueren eta ondare- ondasunen aitortpena bete beharko dute, nork bere aldetik eta Mahaiak onetsitako ereduaren

arabera. Parlamentuko Idazkaritza Nagusian beren izaera frogatzen duten une berean beteko dute, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 1. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

2. Jardueri buruzko aitortenak bilduko ditu aitortzaileek diharduten edozein lanbide-, lan- edo enpresa-jarduera —baldin eta, legeria indarduna-rekin bat, bateraezintasun zioa izan badaiteke— eta, orokorrean, diru-sarrerak ekartzen dituzten edo ekar ditzaketen jarduerak.

3. Ondare-ondasunei buruzko aitortenak bilduko du aitortzailearen edozein motatako ondasun higigarri eta higiezin, eta zehatz-mehatz adieraziko ditu edozein sozietatetan duen partaidetzaren araubidea eta norainokoa eta dauzkan gordailu nahiz ordezkatzeko-baloreak.

4. Artikulu honen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako aitortenak Parlamentuko Mahaiak onetsitako ereduaren arabera eginen dira. Eredu horiek kode honen eranskinean agertzen dira.

5. Aitorpen horiek Interesen Erregistroan jasoko dira. Erregistro hori lehendakaria zuzenean buru duela eta legelari nagusiak zaindurik osatuko da Legebiltzarrean. Erregistroa publikoa izanen da. Jardueri eta ondasunei buruzko informazioa publikoa da eta Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitaratu behar da bi hilabeteko epean, Legebiltzarreko Mahaiak ezarritako moduan eta baldintzetan. Edonola ere, ondasunen aitortenari buruzko informazioa argitaratzerakoan ez dira emanen kokapen datuak, ez eta titularren edo hirugarrenen pribatasuna eta segurtasuna arriskuan jar dezaketenak ere.

6. Halaber, urte natural bakoitzeko lehen seihi-lekoan, foru parlamentariak jardueri eta ondasunei buruzko aitorten berri bat egin beharko dute. Aitortutako datuetan aldaketarik egon ez bada, aitorten horren ordezkari aitortenak berresten dituen aitorten soila aurkez daiteke. Orobat, foru parlamentari izaera galdu eta bi hilabeteko epean aurkeztu beharko dituzte aitorten horiek foru parlamentariak.

7. Foru parlamentariak ikerketa-batzordeen esku utzi beharko dituzte pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarako eta ondarearen gaineko zergarako egin dituzten aitorten kopia kauto-tuak, baldin eta ikerketa-batzordeek aitorten horiek behar badituzte.

8. Legebiltzarkide izaera galdu eta bi urte igarotzen direnean, aitorten agiriak suntsitu egin beharko dira.

## **6. artikulua.** Bateraezintasunen araubidea.

1. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 15. artikuluan aipatzen den foru-legeak bateraezintasunei buruz ezartzen dituen arauak bete behar dituzte foru parlamentariak. Mahaiak Osoko Bilkurara eramanen ditu foru parlamentari bakoitzaren bateragarritasun edo bateraezintasun egoerari buruzko kasuan kasuko proposamenak, foru parlamentariari entzun ondoren.

2. Bateraezintasuna aldarrikatu eta interesdunari jakinarazi ondok, foru parlamentariak sei egun balioduneko epea izanen du gehienez ere, Legebiltzarreko eserlekuaren eta horrekin bateraezina den karguaren artean aukeratzeko. Zein aukeratu duen Mahaiari jakinarazten ez badi, ulertuko da foru parlamentariak uko egin diola Nafarroako Parlamentuko eserlekuari.

## **7. artikulua.** Gardentasuna eta datu biografi-koak.

1. Foru parlamentariak gardentasun printzipioari jarraikiz jardunen dute eta kargua betetzeari buruzko informazio- eta publizitate-betebeharrak beteko dituzte, Kode honetan zehaztutakoaren arabera.

2. Legebiltzarrearen webgunean iruzkin txiki bat argitaratuko da foru parlamentari bakoitzaren datu biografiko pertsonal, akademiko eta profesionalen, eta bertan kontsultatu ahaliko dira legebiltzarkidearentzat garrantzitsuak diren titulu, datu eta artxibo guztiak.

## **8. artikulua.** Etengabeko prestakuntza etika- ren eta praktika onen arloetan.

1. Jokabide-kode hau betetze aldera, Nafarroako Parlamentuak, legegintzaldi bakoitzeko lehen urtean, informazio- eta -prestakuntza bat ezarriko du legebiltzarkideentzat, etikari, praktika onei, gobernu onari eta, oro har, Kode honetan jasotako gaiari buruz.

2. Halaber, foru parlamentariak kargua hartzen duten unean gida bana jasoko dute beren betebeharrak eta bateraezintasunekin, bai eta Jokabide-kode honen ale bat ere. Parlamentariak dokumentuok irakurri eta ulertu dituztela adierazi beharko dute.

3. Nafarroako Gobernuak edota espezialistak dituzten bestelako erakundeek arrazakeriari eta Espainiako Konstituzioaren 14. artikuluko arrazoiengatik bazterkeriari buruzko prestakuntza edo sentsibilizazio-ekintzak eman ahaliko dizkiete Parlamentuko kideei.

**9. artikulua.** Jokabide-kodea betetzeko bermeak eta urteko jarraipen-txostena.

1. Parlamentuko Mahaiak foru parlamentarietako Jokabide-kode hau betetzen dutela bermatu behar du, eta, betetzen ez den kasuetan, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu.

2. Parlamentuko Mahaiak txosten bat onetsiko du urtero Jokabide-kodearen aplikazioa dela-eta eginiko jarduketekin. Txosten hori erakundearen webguneko Gardentasuna atalean argitaratu ematen da.

**10. artikulua.** Arau-haustea eta zehapenak.

1. Jokabide-kode honen urraketak Parlamentuaren Erregelamenduan berriaz ezarritakoaren arabera zigortuko dira.

2. Jokabide-kode honetan aurreikusitako betebeharrak ez betetzetik eratorritako arau-haustea oso larriak, larriak eta arinak, Parlamentuko Erregelamenduko 129. artikulutik 131.era bitarte xedatutakoari jarraikiz eta 132. artikuluan aurreikusitako zigorrak ezarriko dira.

3. Zehapen-prozedurak Erregelamenduaren 134. artikulutik 137.era bitarte xedaturikoari jarraituko dio.

4. Zehapen-araubidea aplikatuko da ezertan galarazi gabe foru parlamentarietako ez-betetze egoera konpondu edo desagerrarazteko neurriak berehala hartzeko duen betebeharra.

**11. artikulua.** Zalantza argitzeko eta galderak egiteko bidea.

Zalantza argitzeko eta galderak egiteko bide bat ezartzen da, foru parlamentarietako eta talde parlamentario eta foru parlamentarietako elkarteetako Jokabide-kode honen aplikazio eta interpretazioari buruzko galderak egin ahal izateko Parlamentuko Mahaiari.

**Xedapen gehigarri bakarra.** Txostenak argitaratzea.

Nafarroako Parlamentuaren Gardentasuna atalean Jokabide-kode honen aplikazioarekin lotutako txosten guztiak argitaratzeko berriazko atal bat sortuko da.



Parlamento de Navarra  
Nafarroako Parlamentua  
XI. Legegintzaldia  
(2023-2027)

# EGINDAKO JARDUERAK (\*)

## NAFARROAKO PARLAMENTUKO KIDEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

1. DEITURA .....	2. DEITURA .....
IZENA .....	

- (\*) -Agiri hau betetzeko garaian kontuan har bitez honako arau hauek:
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 1., 27., 28. eta 29. artikulua.
  - Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen Foru Legearen 3., 4., 5. eta 6. artikulua.
  - Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren 6., 7. eta 155 artikulua.
- Aitorpen honek orrialde nahikorik ez badu, orrialde gehigarriak erabil daitezke.
- Datu Pertsonalen Babeserako 2016/679 Europar Erregelamenduari eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz, honako honen berri ematen dizugu:
- Arduraduna eta helburua:** Emandako datu pertsonalak Nafarroako Parlamentuak tratatuko ditu, eta **“Declaración de Actividades de los Parlamentarios Forales”** tratamendu-sisteman sartuko dira. Horretarako baimena ematen da. Fitxategiaren xedea da beharrezkoak diren datuak eskuratzea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 1., 24. eta 26. artikuluetan ezarritakoari jarraituz foru parlamentariaren jardueri buruzko aitorpen-zeregina betetze aldera. Aitorpen hori egitea baldintza bat da foru parlamentariaren osoko izaera eskuratzeko eta haren jarduerak izaera horrekin bateragarriak diren kontrolatzeko.
- Legitimazioa:** Helburua oinarrituta dago legezko betebeharraren baten betetzean eta Nafarroako Parlamentuaren zenbait ahalmen publikoren erabileran, honako euskarri juridikoarekin:
- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua (1., 27., 28. eta 29. artikulua), Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 16an hartutako Erabakiaren bidez onetsia. (NPAO, 49. zk., 2023ko martxaren 24koa).
  - Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea.
  - Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa.
  - Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 1995eko ekainaren 1eko erabakia.
- Eskubideak:** Orobat jakinarazten dizugu zure eskubidea dela Nafarroako Parlamentuari eskatzea zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta eraman ahal izatea, bai eta datu horien tratamendua mugatzea eta ukatzea ere, bidezkoa denean, Nafarroako Parlamentuari eskaria eginez Navas de Tolosa, 1, 31002 Iruña helbidean edo posta elektronikoko ondoko helbidean: [dpd@parlamentodenavarra.es](mailto:dpd@parlamentodenavarra.es).
- Kontserbazioa:** Nafarroako Parlamentuko Artxiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera kontserbatuko dira datuak. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.
- NPEko 27.9. artikulua: Legebiltzarkide izaera galdu eta bi urte igarotzen direnean, aitorpen agiriak suntsitu egin beharko dira.

**I.- JARDUERA ETA KARGU PUBLIKOAK****1. IZAERA INSTITUZIONALEKO KARGUAK EDO BERE IZAERAGATIK IZENDATUA IZAN DEN BESTELAKO KARGUAK**

KARGUA	ERAKUNDEA	LANSARIAK	
		Bai	Ez
		Bai	Ez
		Bai	Ez
		Bai	Ez

**2. ERAKUNDE KOLEGIATUETAKO ZUZENDARITZA KARGUAK EDO KAPITAL PUBLIKOKO ERAKUNDE EDO ENPRESETAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUETAKOAK**

ERAKUNDE KOLEGIATUA EDO ADMINISTRAZIO KONTSEILUA	ERAKUNDE EDO ENPRESA	ORDEZKARITZAREN IZAERA (Lehendakari, mahaikide...)	LANSARIAK	
			Bai	Ez
			Bai	Ez
			Bai	Ez

**3. BESTELAKO JARDUERA PUBLIKOAK****3.1. Postuak, lanbideak edo jarduerak**

ADMINISTRAZIO, ERAKUNDE EDO ENPRESA PUBLIKOA .....				
HERRIA ..... PROBINTZIA .....				
POSTU EDO LANBIDEAREN IZENA EDO JARDUERAREN DESKRIBAPENA:				
LANSARIA:	Soldata	Arantzela	Ordainak	Besterik

3.2 Herritarren ordezkartzako karguak

ERAKUNDEA..... KARGUA .....	LANSARIA	
	Bai	Ez

KORPORAZIOA..... KARGUA .....	LANSARIA	
	Bai	Ez

3.3 Bestelako kargu publikoetako jarduna

ERAKUNDEA..... KARGUA .....	LANSARIA	
	Bai	Ez

**II.- SEKTORE PUBLIKOAREN KONTURAKO DIRUSARRERAK**

- ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAKO, HAIEN ERAKUNDE EDO ENPRESETAKO EDO KONSTITUZIO ORGANOETAKO AURREKONTUEN KARGURAKO BESTE EDOZEIN LANSARI

--	--

- ESKUBIDE PASIBOAK EDO GIZARTE SEGURANTZA DIRELA-ETA HARTUTAKO PENTSIOAK

ODAINZEN DUEN ERAKUNDEA	AZALPENA

**III.- JARDUERA PRIBATUAK**

1. NORBERAREN KONTURAKO JARDUERAK

JARDUERA EDO ENPRESA .....
HERRIA ..... PROBINTZIA .....
GARATURIKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA .....
.....
.....

2. BESTEREN KONTURAKO JARDUERAK

ENTITATEA EDO ENPRESA .....
HERRIA ..... PROBINTZIA .....
ENPRESAREN JARDUERA NAGUSIA.....
POSTU EDO LANBIDEAREN IZENA:

3. ENPRESA KONTZESIODUN EDO KONTRATISTETAKO KARGUAK, EDO SEKTORE PUBLIKOAK PARTE HARTZEN DUENENKO ENPRESETAKOAK

JARDUERA EDO ENPRESA .....
HERRIA ..... PROBINTZIA .....
JARDUERA SOZIALAREN XEDEA .....
DIHARDUEN KARGUA .....

4. ADMINISTRAZIO PUBLIKOEI ZERBITZUAK EMATEKO ITUNETAKO TITULARTASUNA

ZERBITZUEN IZAERA .....
TITULARRA .....
ADMINISTRAZIO PUBLIKOA .....

5. MERKATARITZA SOZIEATE, SOZIEATE ZIBIL EDO/ETA IRABAZI ASMOA DUTEN PARTZUERGOETAKO ZUZENDARITZA EGINKIZUNAK BETETZEA EDO HAIEN ADMINISTRAZIO ORGANOETAKO KIDE IZATEA

ELKARTE EDO PATZUERGOA .....
HERRIA ..... PROBINTZIA .....
ELKARTEAREN JARDUERA PRIBATUA .....
DIHARDUEN KARGUA .....

6. LANBIDEAN JARDUTEA

LANBIDEA .....
TITULARRA .....

7. GOI KARGUDUNAK, HAREN EZKONTIDEAK ETA ADINEZ TXIKIAK DIREN HAREN SEME-ALABEK, DENEN ARTEAN, % 10ETIK GOITIKO PARTAIDETZA IZATEA OBRA-, ZERBITZU-EDO HORNIDURA-ENPRESETAN, HORIEN IZAERA EDOZEIN DELA ERE, AIPATUTAKO ENPRESAK ESTATU, AUTONOMI EDO TOKI SEKTOREAREKIN ITUNDUTA DAUDENEAN

PARTAIDETZA	TITULARRA	SENIDETASUNA	ENPRESA

**IV.- DIRUSARRERAK SORTZEN DITUZTEN EDO SOR DITZAKETEN BESTELAKO JARDUERAK**

..... (e)n .....(e)ko ..... aren .....(e)an

Sin.:



Parlamento de Navarra  
Nafarroako Parlamentua  
XI. Legegintzaldia  
(2023-2027)

## ONDARE-ONDASUNEI BURUZKO AITORPEN-AGIRIA (\*)

### FORU LEGEBILTZARREKO KIDEA IDENTIFIKATZEKO DATUAK

1. DEITURA ..... 2. DEITURA .....  
IZENA .....

- (\*) - Betetzeko garaian aintzat hartu behar da Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 1., 27. eta 29. artikuluek ezartzen dutena.
- Aitorpen honek orrialde gutxiegi baditu, orrialde osagarriak erabil daitezke.
  - Datu Pertsonalen Babeserako 2016/679 Europar Erregelamenduari eta Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoari jarraikiz, honako honen berri ematen dizugu:

**Arduraduna eta helburua:** Emandako datu pertsonalak Nafarroako Parlamentuak tratatuko ditu, eta **“Declaración de Bienes Patrimoniales de las Parlamentarias y Parlamentarios Forales”** tratamendu-sisteman sartuko dira. Horretarako baimena ematen da. Fitxategiaren xedea da beharrezkoak diren datuak eskuratzea, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 1., 27. eta 29. artikuluetan ezarritakoa betetze aldera. Aitorpen hau egitea foru parlamentariaren osoko izaera eskuratzeko aurretiazko baldintza bat da, eta etorkizunean izaera hori kontrolatzeko balio dezake.

**Legitimazioa:** Xedea oinarrituta dago legezko betebeharraren betetzean eta Nafarroako Parlamentuaren zenbait ahalmen publikoren erabileran, honako oinarri juridikoarekin bat:

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren testu bategina (1., 27. eta 29. artikulua), Osoko Bilkurak 2023ko martxoaren 16an hartutako Erabakiaren bidez onetsia. (NPAO, 49. zk., 2023ko martxoaren 24koa).
- Nafarroako Parlamenturako hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 19/1986 Foru Legea.
- Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoa.
- Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren 1995eko ekainaren 1eko erabakia.

**Eskubideak:** Orobat jakinarazten dizugu zure eskubidea dela Nafarroako Parlamentuari eskatzea zure datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu eta eraman ahal izatea, bai eta datu horien tratamendua mugatzea eta ukatzea ere, bidezkoa denean, Nafarroako Parlamentuari eskaria eginez Navas de Tolosa, 1, 31002 Iruña helbidean edo posta elektronikoko ondoko helbidean: [dpd@parlamentodenavarra.es](mailto:dpd@parlamentodenavarra.es).

**Kontserbazioa:** Nafarroako Parlamentuko Artiboaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Arauetan xedatutakoaren arabera kontserbatuko dira datuak. Arau horiek 2000ko maiatzaren 15ean onetsi zituen Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, eta 2000ko ekainaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren. NPEko 27.9. artikulua: Legebiltzarkide izaera galdu eta bi urte igarotzen direnean, aitorpen agiriak suntsitu egin beharko dira.

**ONDARE-ONDASUNEI BURUZKO AITORPEN-AGIRIA****1. HIRI IZAERA DUTEN ONDASUN HIGIEZINAK ETA HORIEKIKO ESKUBIDEAK**

DESKRIBAPENA	TITULARTASUNA (Jabetza, usufruktua, etab.)	KOKALEKUA (Kalea, zk., udala, probintzia)

**2. LANDA IZAERA DUTEN ONDASUN HIGIEZINAK ETA HORIEKIKO ESKUBIDEAK**

DESKRIBAPENA	TITULARTASUNA (Jabetza, usufruktua, etab.)	KOKALEKUA (Kalea, zk., udala, probintzia)

**3. KONTU KORRONTEKO EDO AURREZKI KONTUKO GORDAILUAK, AGERIKOAK EDO EPERAKOAK. GORDAILUEN EGIAZTAGIRIAK EDO AGIRI BALIOKIDEAK**

GORDAILU MOTA	URTEKO GORDAILUAREN BATAZ BESTEKO SALDOA	GORDAILU BAKOITZAREN ZENBATEKOA AITORPEN HAU EGIN BAINO AURREKO EGUNEAN

4. BIZI-ASEGURUAK

.....
.....
.....
.....
.....

5. ZUZENBIDEZKO ENTITATEEN KAPITAL SOZIALEKO PARTAIDETZAK

.....
.....
.....
.....
.....

6. ZOR PUBLIKO TITULUAK, OBLIGAZIOAK, KUTXA-BONUAK ETA BALIOKIDEAK

.....
.....
.....
.....
.....

7. DITUEN BALORE ORDEZKARITZAKOAK

.....
.....
.....
.....
.....

8. INBERTSIO HIGIGARRIETARAKO SOZietATEEN KAPITAL SOZIALEKO ETA INBERTSIO HIGIGARRIETARAKO FONDOETAKO PARTAIDETZAK

.....
.....
.....
.....
.....

9. 3.000 EURO BAINO GEHIAGO BALIO DUTEN KOTXEAK, ONTZIAK, BITXIAK ETA ARTE OBRAK

.....
.....
.....
.....
.....

10. INDUSTRI JABETZA-ESKUBIDEAK EDO JABETZA-ESKUBIDE INTELEKTUALAK

.....
.....
.....
.....
.....

11. BESTELAKO ONDASUNAK ETA ONDARE ESKUBIDEAK

.....
.....
.....
.....
.....

12. EMANDAKO ARGIBIDEEI BURUZ, AITORTZAILEAK ZEHAZTU EDO GEHITU NAHI DITUENAK

.....
.....
.....
.....
.....

\_\_\_\_\_ (e)n, 20 \_\_\_\_ (e)ko \_\_\_\_\_ aren \_\_\_\_\_ (e)an

Sin.:





